

ADARRA

Pedagogi Erakundea

Mitxel Labegerie, 2-3º Dpto3
48005 - Bilbo

944153795 www.adarra.org

Babeslea:



Bom dia

おはよう

доброе утро

中国,早上好

굿모닝

رحمة و علىكم السلام
الليل

Bună dimineata

dzien dobry

Asante Sana

dziekuje

Naka nga def?

Mangi fi rek

Jërë jëf

HIZKUNTZEN IKASTEA ETA GELAKO DIBERTSITATEA JARDUNALDIEN ONDORIOAK

(Bilbon eginikoak,
2008ko maiatzean)

HIZKUNTZAK ETA DIBERTSITATEA

Ikastetxeetan gero eta handiagoa da hizkuntza (edo hizkuntzak) ikasketa menperatzen ez duen ikasle kopurua, nahiz eta aurrez-aurre gaingitu beharreko kurrikulo mamitsua eduki. Errealitate berri honek hezkuntzako profesionalei exijitzen digu hausnartzea atzerriko jatorria duten ikasleek dituzten zailtasunei buruz eskolako hizkuntzak ikasteko eta bertako kideen antzeko emaitzak lortzeko zer egin behar duten. Orain arte erabili ditugun planteamendu linguistikoak berraztertzea exijitzen digu eta gai hau ikertzen ari direnen proposamen berrietara gerturatzea, ahaztu gabe zentro batzuetan emaitzak ematen hasi diren gertuko proposamen horiek.

- Atzerriko jatorria duen ikasleriaren zati handi bat bere etxean erabiltzen duen hizkuntza desberdin batean erabili behar duen eredu batean eskolatzen da. Haur Hezkuntzatik egiten dutenean, kontsideratzen dugu bertako ikasleen kopuru handi bat egoera berdinean dagoela eskolan bere etxean erabiltzen duen hizkuntza desberdin batean aritzen delako. Halere, kontuan izan behar da, sarritan, ikasle hauen ama-hizkuntza ez dela eskolan erabiltzen den hizkuntzetako bat eta kasu honetan, ez direla egoten bere hizkuntzaren erreferentziarik, ezta ikastetxean ezagutzen duen inor. Honek laguntza izatea zailtzen du konektatzeko ikasleek haien inguruko hizkuntzan egiten dituzten ikasketak eskolan (beste hizkuntza bat erabiliz) egiten dituztenekin. Zailtasun honek bere ikaskuntza atzeratu dezake. Eta hau larriagotzen da zirkunstantzia desberdinengatik, bere ama-hizkuntza ez bada era egokian garatzen bere inguruan.

Ikastetxeak laguntza espezifikoa eskaini behar du eskolako hizkuntzak garatzeko, hauek konektatu ama-hizkuntzarekin eta hizkuntzaren ikaspena bultzatzea bere inguruan eta ahal den neurrian eskolan.

- Atzerritar jatorriko ikasleriak (beste etapa batzuetan hastean eta eskolako hizkuntza desberdin batekin) tardatzen duen denbora bere adinekoen maila linguistikoa lortzeko oso luzea da, inoiz 5 urte

baino gutxiagokoa eta batzuetan 7 eta 9 urte artekoa izan daiteke. (Cummins, 1981a; Collier, 1987; Thomas y Collier, 1997; Coelho, 2004; Oller y Vila, 2008).

Beharrezkoa da zailtasun hau kontutan izatea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak antolatzerakoan. Guztiz beharrezkoa da laguntza linguistikoak planifikatzeko lehen bi urtetatik harago eta egokiak diren aldaketak sartzen joatea.

- Oso azkar lortzen diren trebetasunak elkarrizketakoak dira (erlazio pertsonaletan erabiltzen diren trebetasuna, aurrez aurrekoak). Hauek testuinguru eskolarraren barruan zein beretik kanpo garatu daitezke, eta gutxienez 18 hilabetetako denbora behar izaten du. Halere, Euskadin maiz gertatzen den bezala (D ereduan kokatuta erdara hitz egiten dutenen testuinguruan), atzerri jatorria duen ikasleriak soilik testuinguru eskolarra dauka hauek garatzeko, beharrezkoa duen denbora eskolak egiten duenaren arabera asko edo gutxi luzatu daiteke.

Trebetasun kognitibo-akademikoen jabetzea (eskolarekin, idatzitakoarekin, irakurketa, idazketarekin... erlazonatuta dauden trebetasunak) elkarrizketa trebetasunetan sostengatzen dira. Elkarrizketa trebetasun hauen jabetze prozesua motel badoa, atzeratzen eta zailtzen ditu trebetasun kognitibo-akademikoak. Era berean, eduki akademikoaren maila txikiagotzen bada, trebetasun kognitibo-akademiko ariketen exigentzia maila txikiagotuz, trebetasun kognitibo-akademiko eta hizkuntzaren ikaskuntza atzeratzen ditu.

Beraz, beharrezkoa da: exigentzia kognitibo handiko jarduerak planteatzea laguntza eskolar eta eskolaz kanpo, ikasleriak lanak egin ditzan. Sartu eta planifikatu elkarrizketa trebetasunen ikaspena kognitiboa eta akademikoez gain.



*Bi eratako trebetasunen garapena ziurtatzeko, funtsezkoa da ahozko hizkera eta honek hezkuntza jardueraren buru izatea, idatzia edo beste era batekoa izanda. Edozein eskola jarduera ahozko hizkuntzaren bidez egon beharko litzateke bitartekatua, negoziatua eta kontestualizatua; **JARDUERA DIALOGIKOA** deitzen duguna. Ikasleagoarekin talde txikiak antolatu beharko lirateke, une oro hitz egin eta negoziatzeko esanahia, ez ezartzeko ikasleak ulertzen gaituela, ariketak ulertzen dituela, testuak, etab. Era berean, irakurtzen eta idazten irakatsi behar denean, ahozko hizkuntzatik abiatu behar gara. Eskola inguruneko hizkuntzak ikastean datzanean, biderik onena ez da hizkuntzaren irakaspen formatan oinarritzea, baizik eta "hizkuntzaren bidez ikastea" eta horrela hizkuntzaren ikaspena edukiarekin lotua izango da. Hau guztia jarduera esanguratsu eta elkarriketaren laguntzarekin.*

- Kontuan izanda, hizkuntza berarekin gauzak eginez ikasten dela eta erabiltzen duten pertsonekin, atzerriko ikasleak gelatik ateratzen baditugu eta hizkuntza ezagutzen ez duten beste ikasle atzerritarrek batzen baditugu, norekin ikasiko dute euskara? Ikerketa desberdinen arabera, *gela arruntean dauden ikasleak eskolako hizkuntzan emaitza hobeak lortzen ari dira.*

- Funtsezkoa da atzerritar jatorria duten ikasleek trebetasunak transmititzea bere hizkuntzatik eskolako hizkuntzara. Horretarako, honek eskola testuinguruan presentzia izan behar du eta era berean aukera izan behar du elkarrizketa trebetasunak garatzeko eskolako hizkuntzan.

Irakasleen JARRERA bat da gelan dauden hizkuntzei adi egotea, jakitea zer egiten dakiten euren hizkuntzan eta aprobetxatu eskolako hizkuntzak ikasi dezaten. Ez datza ikasleriaren H1 erabiltzea matematikak edo zientziak ikasteko, baizik eta euskara edo erdara ikas dezan.

- Halaber, beharrezkoa da, ikasleriak era formalean bere hizkuntzan garatu dezala, era boluntarioan ikas dezala,... Era honetara garapen kognitiboa bermatua dago hizkuntza berriak ikasten dituen bitartean. Horretarako, bultzatu beharra dago heziketa jarraipena eskola testuinguruaren eta ingurunearen artean.

Alegia, ikasleen ama-hizkuntzaren mantentzean eskolak kolaboratzea garrantzitsua da.

- Azpimarratu beharra dago harreraren balorea. Ikus daiteke, konpetentzia komunikatiboak hobetzen direla ikasleria ikastetxean ondo hartua dagoenean. Kontuan hartzen dela ikusten denean, entzuten zaiola, baloratzen dela dakiena, bere hizkuntza zein ohiturek islara dutela zentroaren eguneroko bizitzan, etab. Hezkuntza taldeak erabaki behar du zeintzuk diren beraien protokoloak familia eta irakasleriarekiko, baita ere giza-baliabideen erabilera (errefortzu linguistikoaren proiektua) eta materialak (espazioak, taldeak...). *Harrera prozesu honetan, konpetentzia komunikatiboen hobekuntza dakarrena, azpimarratu beharra dago akzio tutorialaren garrantzia, taldekoa zein norbanakoa, baita ere bien arteko laguntza.*

Aipatutako aspektuak sustatzen dituzten praktika batzuk:

- Lana talde interaktiboetan, talde bakoitzean pertsona helduek dinamizatutako talde txiki heterogeneoak, sustatzen dituztenak ikasleriaren artean interakzioak, zeina bermatzen duen ahozko hizkuntzaren presentzia ekintza zehatz baten inguruan.
- Solasaldi literarioak testuaren irakurketa bateratuz beraren inguruko komentarioa eta ondorengo elkarriketa ekintza berdinean, elkarriketa trebetasunen eta kognitibo-akademikoekin ariketa berean batzen ditu.
- Talde interaktiboetara batzen diren pertsona helduak, solasaldietara edota gelako beste jarduera batzuetara, ikasleriaren familia hizkuntzaren hizlaria izan daiteke, zeinak errazten du transferentzia eta hizkuntza familiarra bultzatzen da.
- Ordutegiaren luzatzea (liburutegia, eskolaz kanpokoak, informatika gelak, errefortzu linguistiko eta akademikoa eskolaz kanpoko ordutegian). Ordutegi honetan ere, beste hizkuntza batzuetako hitzunei laguntza eskatu ahal zaie lanetan laguntzeko.
- Une batzuetan, familia hizkuntza bera elkarbanatzen duten ikasleek (eta izate maila desberdinak dituztenak eskolako hizkuntzarekiko) elkarri lagundu diezaiokete gela edota hortik kanpo lan batzuk burutzeko.
- Atzerriar jatorria duen ikasleriaren hizkuntzen presentzia eta irakaspena sustatu, hizkuntza desberdinen eskolak antolatuz eskola eta eskolaz kanpoko ordutegian, ikasle guztiei irekia ; testuaren zabalkundea hizkuntza desberdinetan egitea, hizkuntza hauetako hizlariak gonbidatu zentroetan jarduerak burutzera edo Internetik testuak deskargatzea... baliabide erakargarriak izan daitezke lantzeko eta ikus dezaten eskolako hizkuntza desberdinak.
- Hizkuntzen ikaspenarekin lotuta dagoen formazioa antolatu irakasleriarentzat, familia eta komunitateko eragile desberdinentzat bere interesen funtzioan eta hausnarketa foroak eta eztabaidak antolatu ikastetxeetan.

- Errefortzu linguistikoa gelan bertan antolatu eta aprobetxatu irakasle bat baino gehiago dagoela komunikazioa sustatzeko eta jarduera akademikoaren inguruko interakzioak.



Ikastetxearen proiektu linguistikoa

Ikasleriaren eta bere familien konposaketa azken urteetan asko aldatu da, baita ere gizartearen exigentzia linguistikoak. Ikasleriaren dibertsitatea estrategia berriak bilatzera bultzatzen gaitu hezkuntza jokabidean, hizkuntzetan maila altuagoak lortzeko, adibidez. Honek, gaur egungo hizkuntzak ikasteko planteamenduak aldatzera eramaten baitu. Horretarako, daukagun erreminta ikastetxeko Proiektu Linguistikoa da.

Ikastetxeko proiektu linguistikoa dokumentu bat, zentroko helburu linguistiko eta hezigarrigatik abiatuta dago eta bere testuinguru soziolinguistikoa irizpide eta jarduteko erak batzen ditu, zeinak balio duten planifikatzeko eta erregulatzeko kurrikuloaren hizkuntza desberdinak; hala nola, garatzeko beharrezkoak diren baliabideak, eremu guztietan, era koherentean, zentroaren proiektu elebidun eta eleanitza.

Edozein erabaki ainguratua egon behar da ikastetxeko testuinguru soziolinguistikoa eta kontuan izan zentroan dagoen ikasleri guztia. Beraz, abiatze puntua eta hartuko diren erabakiak zentro bakoitzean desberdinak izango dira, baina INOIZ EZ azken helmuga.

Ikastetxeak, kontuan izanda testuinguru soziolinguistikoa eta ikasle guztiek lortu behar dituzten helburu orokorrak, hartuko ditu erabakiak ikasle guztiek helburu guzti hauek lortu ditzan eta neurriak zein beharrezkoak diren bitartekoak jarri beharko ditu.

Ikastetxearen erabakiak

Ikasleen taldeak.

Hizkuntzen erabilera eskolan.

Zikloen eta etapen arteko erabakiak

H1, H2 eta H3 orduak etapa bakoitzean.

Hizkuntza bakoitzaren tratamendua.

Irakurketa eta idazketaren tratamendua.

Arlo kurrikularren arteko erabakiak

Hizkuntzen erabilera arlo bakoitzean.

Ekintza komunak arloen artean.

Erabakiak hizkuntzen arloan

Hizkuntza guztietarako irizpide metodologiko berdinak.

Hizkuntza bakoitzaren denbora eta lekua.

Ebaluazio irizpide komunak.

Hizkuntzen Tratamendu Integratua.

Bilbon, 2009ko otsailean

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA

adarraerakundea@gmail.com